

AIZKORA ETA KIRTENA. ¹

Egur-gille bat	Arte onaren
Sort egitera	Kontra egiten
Joan zan basoan barrena,	Oju eta deadarrak.
Eta bidean	Asto andia,
Galdu zitzaion	Esaten die,
Aizkoratikan kirtena.	„Ez alekien oraindik,
Sort egiteko	Egur-gilleak
Beste berri bat	Bizi dirala
Egin nairik aizkorari,	Guk galtzen degun bizititik?
Gaya eskatzen	Orra zer esker
Asi zitzaion	Ematen dian;
An zan arbol bakoitzari.	Orain asi dek igandik,
Iñork ez zion	Sarri ez geatzik
Gairik eman nai,	Bat bakarrikan
Eta arteak bakarrik	Basoan utziko zutik:
Adar mecho bat	Iri bakarrik
Eskeñi zion	Egin bazian
Gaño artaz kupiturik;	Tonto-tzar orri, kaltea,
Kirten berria	Ezer ez uen,
Egñ ondoren	Baña guretzat
Sartzen dio aizkorari,	Ez dek izango obea.
Eta golpeka	Bere etsaiari
Asitzen zaio	Eman badio
Arte ariše berari.	Noizbait norbaitek eskua,
Au ikusi ta	Len edo gero
Asten dirade	Ikusiko du
Zumarrak eta lizarrak,	Galdurik bere burua.

(1) Samaniego-ren ipuiak euskerara itzuliak